

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

4692

EBAZPENA, 2023ko urriaren 4koa, Kulturako sailburuordearena, zeinaren bidez gauzazko laguntzak ematen baitira euskal kultura-ondarea katalogatu, digitalizatu eta kontserbatzeko, Euskariana euskal kulturaren atari digitalaren bidez hedatzeko.

2023ko ekainaren 5eko EHAA (105. zk.), Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2023ko maiatzaren 30eko Agindua argitaratu zen, zeinaren bidez euskal kultura-ondarea katalogatu, digitalizatu eta kontserbatzeko gauzazko laguntzak arautzen diren, Euskariana euskal kulturaren atari digitalaren bidez hedatzeko, eta 2023an proiektuak aurkezteko deialdia egiten den.

Eskabideak aurkezteko epea, Aginduaren 8.1 artikulua dioenez, 2023ko uztailaren 5ean amaitu zen.

Aginduaren 12. artikuluan aurreikusitako Balorazio Batzordea bildu zen, eta eskabideak aztertu ondoren, proiektuak baloratu ziren, Aginduaren 13. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Balorazio Batzordearen ebazpen-proposamena ikusita, eta aipatutako Aginduaren 15. artikuluan eta gainerako xedapen orokorretan ezarritakoarekin bat etorrita, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– I. eranskinean zerrendatzen diren pertsonai/erakundeei gauzazko laguntzak ematea, eranskin horretan zehazten diren proiektuen eta kostuen arabera.

Kultura Ondarearen Zuzendaritzak egikarituko ditu onetsitako proiektuak 2024an zehar, eta dagokion kontratazioa egingo da zerbitzua emateko. Beraz, onetsitako proiektuen pertsona onuradunek ez dute jasoko inolako zenbateko ekonomikorik.

Bigarrena.– II. eranskinean zerrendatutako pertsonak/erakundeek aurkeztutako eskabideak ezestea, eranskin horretan adierazitako arrazoiengatik.

Hirugarrena.– Pertsona eta erakunde onuradunak gauzazko laguntzak arautzen dituen Aginduak ezarritako baldintzen menpe geratzen dira, bai eta Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eremuan indarrean dauden gainerako baldintza orokorren menpe ere.

Laugarrena.– Pertsona eta erakunde interesdunei banan-banan ematea ebazpen honen berri, eta ohartaraztea ezen, laguntza eman zaiela aditzera ematen duen jakinarazpena jaso eta hamar eguneko epean ez badiote espresuki uko egiten, onartu egin dutela ulertuko dela.

Bosgarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea, jende guztiak horren berri izan dezan, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 49.2 artikulua aurreikusten duenarekin bat etorritik.

AZKEN XEDAPENA

Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari, hilabeteko epean, ebaz-

2023ko urriaren 16a, astelehena

pena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan xedatutakoa betez.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko urriaren 4a.

Kulturako sailburuordea,
ANDONI ITURBE AMOREBIETA.

2023ko urriaren 16a, astelehena

I. ERANSKINA
ONETSITAKO PROIEKTUAK

Eskatzailea	Espedientea	Proiektua	Puntuazioa, guztira	Proiektuaren kostua (eurotan)
Berrizko Udala	001-KOD-2023	«Berriz Iruditan» webgunea (argazki zaharren katalogazioa, digitalizazioa eta informazioa) pilotzea eta danon eskura jartzea	53,78	5.017,00
Idiazabalgo Udala	010-KOD-2023	Idiazabalgo Zirikari Irratiaren audio artxiboa	69,55	12.231,83
Vitoria-Gasteizko Udala	007-KOD-2023	Digitalización del Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava. Años 1834-1862	71,31	10.417,12
Bilboko Udala	004-KOD-2023	Bilboko Liburutegi Digitala 2024	43,90	2.606,41
Bodegas de los Herederos del Marqués de Riscal, SLU	009-KOD-2023	Descripción de Influencias Técnicas de Marqués de Riscal desde el siglo XIX. - 1858. Marqués de Riscal. Primera bodega de Rioja en elaborar vinos según métodos bordeleses.	66,43	5.860,56
Centro Internacional de Cultura Contemporánea, SA	006-KOD-2023	Iñigo Salaberriaren ikus-entzunezko funtsa katalogatzea, digitalizatzea, kontserbatzea eta hedatzea	53,01	9.808,02
Donostia Kultura, EEP	005-KOD-2023	Gipuzkoako mediku elkartearen aldizkariak XIX-XX mendeak	53,68	4.197,52
Eresbil Fundazioa - Musikaren Euskal Artxiboa	002-KOD-2023	Rollos de piano perforado pertenecientes al patrimonio cultural vasco	61,70	11.270,60
Eresbil Fundazioa - Musikaren Euskal Artxiboa	003-KOD-2023	Partituras del siglo XIX pertenecientes al patrimonio cultural vasco	54,51	2.517,66
Goiena Komunikazio Taldea, Koop. E.	011-KOD-2023	Arrasate Telebistaren ikus-entzunezko funtsa digitalizatu eta katalogatzea	87,50	19.998,00
			Guztira	83.924,72

2023ko urriaren 16a, astelehena

II. ERANSKINA

EZETSITAKO ESKAERAK

Eskatzailea	Xabi Navarro Etxeberria
Espedientea	008-KOD-2023
Arrazoa	Eskaeran atzera egin dela ulertu da, ez baita zuzenketarik aurkeztu